

Irainaren dialektika ustela

Deia, 1979-10-11.

Hauteskunde bezpera hontan lehertu zaigu herrian, harma bat bezala, gizartean hain ezaguna den fenomeno bat: arrazoi-bideak krisian sartzen direnean, irain-bideak hasten dira bereak egiten.

Politika Kanpainetan, lege gisako edo noraezeko zerbait balitz bezala.

Eta, tira, ezin dezagun gure artean ere halaxe dela.

Baina honek ez du esan nahi egiaren, arrazoiaren eta justiziaren aurka irainak egiten duen kaltea, eta giro berezi baten fruitu delako, toleragarri izan behar duenik; irainak, indibidualak direnean ere, ukitzen dituen hastapenak sozialak baitira.

Batez ere, eta hau izan da Jesus Mari Alkain-en kasua, irainaren jomuga ordezkari bat denean.

Irainak ba ditu bezala bentajak: eraman erraza dela, eta merkea; erabiltzen duenari ez dio talentu handirik eskatzen; nahikoa du iraintzaleak barru txar baten jabe izan, eta hitz bat esateko mingaina, eta eskrupulorik, batera ez.

Hortxe duzu fanatiko baten erretratua.

Ez dago ezker-eskuineko eskusibarik.

Hain indartsua eta erabil erraza den harma honek ba ditu, hala ere, bereak diren ahuleziak. Batetik, gezurrarenak berak: oinak ditu laburrak, eta makalak: berez eta laster erortzen da; eta bestetik, iraina arrazoirik ez duenaren arrazoi bilakatzen denez, inoraezineko bide itsuan erortzen da.

Uholde handi baten bidea dirudi.

Ur lodi eta burrunbariak gain behera dijoaz, zurrumbiloz zurrumbilo: enborrak, seaskatxo bat, ustelak leher zorian puztu duen zerria... Hori dena inorena, besterena, balitz bezala ikusten duenak konturatu behar luke hor dijoana denena den herria dela.

Hala ere, itota ur-tiraren gainean auzpez kortxo bat bezala, gizona bera ikusten ez den arte ez gara urduritzen.

Eta orduan ere ez asko.

Hilak, egia esan, aspaldidanik dijoaz honelako gorputzak gain behera gure herrian.

Idatzi ez dugun historian, konta ezinak.

Hala ere, gaurkoak berak nahiko behar lukete izan gure gogoa zintzilik jartzeko.

Baina ez al gara konturatzea, bai batekoak, bai bestekoak, gure herria bera ari dela osorik kloaka batetik behera hustutzen!

Nola ari gara taldekerian hain urruti, hain itsu, hain Kain-ki, erortzea!

Ez baititugu honela galtzeko mila herri.

Dugun hau, bakarra dugu: eta ez handia, ez indartsua, ez osatua, ez jantzia, ez gertua; txikia, ahula, zatitua eta mundo hontan biluzik leku bila dabilen bakarra baizik.

Eta arerioz inguratua, gainera.

Beharrezkoa dugu garai hontan batez ere euskaldunaren zentzua, eta zentzu bidez, herri hontako gizonaren arrazoi bidea, gerriz gorakoa, gizonaren burua; eta sobera dugu orain euskaldunak barruan dugun apustularia, gerritik beherakoa bakarrik den gizona.

Gizon osoaren beharra du gaur gure herriak.

Irainaren bidea, idealak defendatzeko okerra izateaz gainera, ez da pizkorra ere.

Iraina sinezerraza denean, arerioaren aurkako bideak laster egiten dituen harma da; baina sinesgaitza denean, irainlariaren aurpegian bertan lehertzen den gailua.

Eta harma hortaz baliatzen denak besterik ez duela adierazten du.

Arrazoin ustela.